

Sun Araw



Cameron Stallones aka Sun Araw kaliforniar artista eta dub joerako psikodelia tropikalaren ikertzailea Az-n izango da, John Leland perkusionistarekin batera.

Oihartzunen, sanplerreren, ahotsen, gitarra hedakorraren noten esperientzia bizi baten bidez, elektronika, psikodelia, duba, funka eta reggaea nahastuz, adimen-egoera eldarniozko eta gozagarri batera garamatza beren proposamenak.

Sun Araw artistaren aurretik aski zabaldua zegoen dubarekiko eta haren aldaera ugarietako miresmena. King Tubbyren esperimenteren ondoren Jamaikan jaiotako soinu-kode horren barruan, eta krautrock, psikodelia eta samplingetik hartutako tresnez baliatuta, bere hizkera propioa definitu du Austinen (Texas) jaiotako artista honek.

Aurreko paragrafoan aipatutako joerek bestelako tankera bat hartzen dute Cameron Stallonesen eskuetan: hain zuzen ere, artistak ezizen horrekin argitaratu zuen lehen bilduma, *The Phynx* (2008), mugarri erabatekoa izan zen Not Not Fun disko etxearentzat, zeina nabarmendu baita aurreko hamarraldian eta hamarraldi honen hasieran joera esperimenteral iparramerikarrak zabaltzeko egindako ahaleginagatik.

Sun Araw M. Geddes Gengras eta The Congos jamaikar reggae-ko artista handiekin lankidetzan jardun du, RVNG Intl. etxearen eskutik (2012), eta horixe du, hain zuzen, musikari gisa osatu duen katalogo zabalaren gailurretako bat, emaitza artistiko paregabea sortu baitzuen agertoki ia sakratu batean kulturaren gaineko bi ikuspegi soinuarekin eta behe-maiztasunarekin uztartuz.

////////////////////////////////////

Otsailak 22, ostirala

21:00

Kulturen Ataria (Igerilekuaren argi-zuloaren azpian)

10€ / 8€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta

www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 www.sunaraw.com

Laguntzailea:



Kontsultatu Musika eta Soinua Programa osoa hemen: www.azkunazentroa.eus